

*2024ko uda*

*Haurrentzako eta gazteentzako ikastaroak*

## **AURRETIKO IZEN-EMATEAREN ETA ZOZKETAREN sistema**

### **NOLA EGIN AURRETIKO IZEN-EMATEA**

**Noiz?** Maiatzaren 1etik 21era.

Deskarga



Hor sartu ondoren, interesa duzun ikastaro guztietan izena eman ahal izango duzu. Aurretiko izen-ematea egiteak EZ du esan nahi plaza erreserbatuta dagoenik.

Edozein zalantza izanez gero, deitu iezaguzu, edo galdetu [repcion@fundacionestadio.eus](mailto:repcion@fundacionestadio.eus) helbidera idatzita. Kontuan izan ezazu epea amaitutakoan ezingo zaitugula sartu ikastaroa beteta baldin badago; hala gertatuz gero, itxarote-zerrendan zure izena eman besterik ezingo dugu egin.

### **Ordainbidea**

Ikastaro bakoitza ordaintzeko, email bat iritsiko zaizue, ordainketa eginez izen-ematea baieztatzeko. Ikastaroa osorik ordaindu behar da plaza erreserbatu ahal izateko. Ordainketak gure saltokiko terminal birtualaren bidez egingo dira, zordunketa edo kreditu txartela erabiliz. Ordainketa egindakoan, inskripzioa berretsita geratuko da.

**Adi! Ordaintzeko, 48 orduko epea duzu.**

### **ZOZKETA**

**Noiz?** Maiatzaren 27an (astelehena), 10:00etan.

**Nola?** Aplikazioak zozketa korrelatibo bat egingo du, eta plaza berresteko mezu elektronikoa bidaliko du. Une horretatik, 48 ordu dituzu izen-ematea baieztatzeko, gure saltokiko terminal birtualaren bidez ordainduz, zordunketa edo kreditu txartela erabiliz. Ordainketa egindakoan, inskripzioa berretsita geratuko da.

Ordainketa garaiz egiten ez baduzu, itxarote-zerrendan dagoen lehenengo pertsona sartuko da zure lekuan, automatikoki; eta horrela, hurrenez hurren, plazak bete arte.

Informazio guztia eskura duzu gure webgunean: [www.fundacionestadio.eus](http://www.fundacionestadio.eus)

## **Izen-emateak ezeztatzeko politika**

Estadio Vital Fundazioaren eskubidea da ikastaro bat ezeztatzea, baldin izen-emate nahikorik ez badago (eskainitako plazen % 50 gutxienez); horren berri eman beharko du 2024ko ekainaren 14a baino lehen. Erabat itzuliko dira ezeztatutako izen-emateengatik jasotako ordainketak, inolako konpentsaziorik gabe.

### **Bajak**

Izen-ematea egin eta gero, iritzia aldatuta, izen-ematea ezeztatu nahi bada, idatziz jakinarazi behar da, [repcion@fundacionestadio.eus](mailto:repcion@fundacionestadio.eus) helbidera mezu bat bidaliz; lehenbailehen erantzungo dugu.

Ez da onartuko beste ezein bidetatik jakinarazitako ezeztatzerik. Mezu elektronikoko horretan, izen-ematearen datuak adierazi behar dira, datu hauek barne: *ikastaroaren izena, ikastaroa egin behar zuenaren izen-abizenak, eta kontaktu datuak.*

### **Kirola Euskaraz eta Sport & English jarduera trinkoen itzulketak:**

- Ikastaroa hasi baino 10 egun natural lehenago jasotako ezeztapeneterako, ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzuliko da, 20 euro kenduta (izen-ematearen gastuak).
- Ikastarorako 10 egun natural baino gutxiago falta direla egindako ezeztapenetan, ez da itzulketarako eskubiderik izango.
- Itzulketak, betiere, ezeztatze eskaera egin ondorengo 15 egun naturalen barruan egingo dira.

## **Pribatutasun politika**

Emandako datu pertsonalak (norberarenak edo 14 urtetik beherakoenak; azken kasu horretan, legezko ordezkari gisa tratatzeko baimena ematen duzu, berariaz) eta/edo harremanean sortutako beste edozein datu FUNDACIÓN ESTADIO VITAL FUNDAZIOAK tratatuko ditu, harremanetan egotearren eta komunikatzearren, Fundazioak sustatutako programak, jarduerak eta proiektuak kudeatzearren (osasun datuen tratamendua barne, zerbitzu horietarako beharrezkoa denean), eta proiektu berriei buruzko informazioa bidaltzearren. Antolatzen ditugun jarduera eta ekitaldietan argazkiak eta/edo bideoak egin ahal izango dira.

Tratamenduaren oinarri dira gure kontratu harremana (eta, osasun datuen kasuan, tratamendu hori beharrezkoa izatea prebentzio medikuntzako eta/edo osasun laguntza ematearren), eta zure adostasuna (irudietarako).

Kasu jakin batzuetan, datuak jakinaraziko dizkiegu hirugarrenei. Zure eskubidea da, hala egokituz gero, zure datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, aurkaratu, datuen eramangarritasuna eskatzea, tratamendua mugatzea eta erabaki automatizatuaren xede ez izatea, [www.fundacionestadio.eus](http://www.fundacionestadio.eus) webgunearen pribatutasun politikan ikus dezakezun informazio gehigarri eta osoan zehaztuta dagoenez.